



AZAROKO DOAKO JARDUERAK

Azaroak 1, 17:00 GIZA PROBA

"Ur-Epel" harriarekin giza proba ikusgarria ospatuko da. Dema plaza, Usurbil.

Azaroaren 8tik aurrera "ARTISTAK GARA"

Sormenezko haurrentzako doako tailerra. Kids Zone gunean.

Azaroak 9 ROCKET LEAGUE TXAPELKETA

Hype Station® gunean.

Azaroak 23 JUST DANCE TXAPELKETA

Hype Station® gunean.

Azaroaren 11ra arte ZOZKETA

Urbileko Costa Jump berria ezagutzeko 10 sarrera.

ETA GAINERA...



urbil.es

Neurri zuzena



AMANCAY GAZTAÑAGA
AKTOREA ETA ZUZENDARIA

Urduritasunez hurbiltzen naiz, lehen aldiz, zuengana. ARGIArentzat iritzi artikulua idatziko al nituen galdetu zidatenean, bi aldiz pentsatu behar izan nuen. Bat: nork bere iritzia publikoki ematea, gaur egun garesti irten daitekeen zerbait delako. Bi: ARGIA beti izan dudalako euskal erudituen bizileku, kulturaren zer eta *nolak* kontrolatzen dituzten horien parada. Hau honela, zer kontatu nezake nik? Bere burua txikitat duen emakume honek? Zerbait berritzailea, apurtzailea beharko du izan, artikulua ira-kurriko duten euskal eruditu horien mailan egongo bada.

Harri egiten zait herria.
Gogorra, maskulinoa
irudikatzen dut zuen
txokoa ene eruditu maiteak.
Emakumeren bat egongo
da noski. Beti gaude bat
edo beste, ia beti, gizon
dugun lagun min baten
eskutik iritsiak
gure postuetara

Kontatuko dizuet ba, ni, sormen mundutik natorrela, antzerkizalea naitzela, aktorea, zuzendaria eta dramaturgo lanak ere egiten ditudala. Eta hau, aho txikiz kontatzen dizuet, ni neu naitzen eta egin dudan guzti horren jabe izango ez banintz bezala.

Nire burua definitzeko pudore horrek, hasieran esan dudanarekin du lotura, emakume txiki horren irudiarrekin. Ez nuke zuek pentsatzerik nahi,

ez naizenik indartsu sentitzen. Kontrakoa. Batzuetan ia ziurtasunez pentsa nezake, superboteak ditudana. Bestela nola biziraun hemen, kulturaren jabe diren erudituen artean, *gizon-munduan*? Nola sortu diskurtso propio bat, beraien normak eta egiteko erak jarraitu behar ditudanean? Zer kontatu nezake nik, nola, nondik, publikoari ematen zaionaren jabe badira. Sistema beraiena bada, beraien erara sortua. Erreferente feminorik gabe eraikitako munduan, gu.

Harri egiten zait herria. Gogorra, maskulinoa irudikatzen dut zuen txokoa ene eruditu maiteak. Emakumeren bat egongo da noski. Beti gaude bat edo beste, ia beti, gizon dugun lagun min baten eskutik iritsiak gure postuetara. Beharrezkoa den portzentajea txiki hori gara, dena bare mantentzeko eraikia, kexatu ez gaitzen, dena aldatzen doanaren parodia.

Harri herria. Harri, *gizon-munduak* duen sormena ikusteko era, egiteko era. Zauriz beteta ikusten ditut sexu berdineko lankideak. Neurri horietan kabitu ahal izateko zer ebaki behar izan duten jakin gabe. Beraien mundua moztan, moztan, moztan... Neurri zuzena izan arte.

"Denbora luze gizonzkoiei egokitutako postu batean egotea ez da erraza izango, atrebitu egin behar ezta?". Hori galdetu zidaten behin elkarrizketa batean, nire zuzendari paperaren inguruan hizketan genbiltzala. *Gizon-munduan* kabitu izanagatik harro sentitu nintzen. Artean jabetu gabe nintzen zauriaz, nire esentziari ebaki behar izan diodan horretaz. Joana da, ez da berriz nire parte izango. Eta min egiten dit. Zauriak min.

Baina...

Kabitu naiz. Neurri zuzena dut orain. ●